



Bete galdetegia!

Planifikazio prozesua

Hernani Burujabek herritarrak ahaldu nahi ditu bizitzarako oinarrizko diren sektoreetan. Horretarako, planifikazio publiko-ekonomiko-komunitarioa diseinatzeko hirugarren urtea izango da aurtengoa.

Alegia, behin herritarren beharrak zeintzuk diren ezagututa, eragile ekonomikoekin batera proposamen zehatzak sortzen dira, eta Udalak horiek martxan jartzeko baliabideak publikatu eta herritartzeko prozesua abiatzen du.

Lehenengo pausoa, beraz, hernaniarren beharren diagnostikoa egitea da. Azken bi urteetan auzoz auzo ibili da Bidea herritar taldea lan hori gauzatzen eta, bide batez, Hernani Burujabetik egiten den jardunaren berri ematen. 2026an, ordea, proiektu honekiko ezagutza maila handiagoa dela-eta, **herritarren beharrak galdetegi baten bidez jasoko dira**, parte hartzea errazteko asmotan.

Orrialde honetan bertan galdetegirako lotura egiten duen

QR kodea ageri da; bestela, hernaniburujabe.eus webgunean sartuta ere bete ahalko da. Hernani Burujaben lantzen diren zazpi sektoreen inguruko ekarpenak jasotzeko tresna izango da: elikadura, energia, etxebizitza, ekhia, zaintza, telekomunikazioak eta bioaniztasuna, hain justu. Izan ere, herritarrei hitza emateaz gain, denek prozesuan parte hartzeko aukera izatea dela bidea pentsatzen dugu.

**Herritarrak ahaldu
Herritarrok erabaki**

Mugikorrean QR kode irakurgailua ireki eta ondoko irudia hartu kamerarekin



[http://www.](http://www.hernaniburujabe.eus)

hernaniburujabe.eus webgunean sartu eta galdetegia bete



elikadura

Amaitu da Nekazaritza Eskolaren bigarren edizioa

Zaurgarritasun egoeran dauden 31 herritarrek hartu dute parte formakuntza, gizarteratzea eta tokiko nekazaritza uztartzen dituen ibilbide honetan

Beterri Buruntza Mankomunitateak, HENASEk, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Hernaniko Udalak elkarlanean garatutako egitasmoa da Nekazaritza Eskola, Elkarrekin programaren bidez sustatua.

Aurtengo edizioan, orotara, 31 pertsonak hartu dute parte, guztiak ere zaurgarritasun egoeran dauden herritarrak. Horietatik 21ek bukatu zuten ibilbidea, 4 pertsonak bere egoera erregularizatu dute eta 2k lana lortu dute formakuntzan parte hartzeagatik.

Ikastaroa amaituta, ikasleek bi hilabeteko praktikaldiak egin dituzte HENASEko zein Beterri Buruntzaldeko Eskualdeko etxaldeen. Era berean, HENASEko ekoizle profesionalak ere programan parte hartu dute, formakuntza teorikoan irakasle lanetan arituz eta gai espezifikoaren inguruko saiok dinamizatuz.



telekomunikazioak

Kaxkoan zuntz publiko-komunitarioa zabaltzeaz bukatuko dute aurten

Udala, EHKOM eta Izarkom Hernaniko Kaxkoan Interneterako konexioa hobetuko duen zuntza hedatzeko lanetan ari dira. Aurten bukatzea aurreikusten dute

Gaur egun oinarrizko eskubide den Internet konexioa bermatze aldera, herrian konexio txarra duten auzo edo eremuak sarbide egokia izan dezaten baliabidez hornitzea da elkarlan honen helburua. Hernaniren kasuan, Kaxkoa da eremu horietako bat.

2023an hasi zituzten zuntza hedatzeko obrak. 2025ean bigarren fasea bukatu berri dute eta, horri esker, ondorengo etxebizitzek dute zuntzera konektatzeko aukera: Kale Nagusian, 2 zenbakidun portaletik hasi eta 46 zenbakira arteko atari bikoitiek, 47a, eta 49tik 58ra bitartekoak; Andre Kalen, berriz, 1. portaletik 49ra arteko portal bakoitiek.

Sarea librea denez, edozein operadorearen bidez dago hura erabiltzeko aukera. Aurten, Kaxko osoko obrak bukatzea aurreikusten dute.

ekhia

Goieneko Ekhilur sisteman integratzeko froga egingo da merkatariekin

Ekhilurren erronketako bat da ekhi monetaren zirkuitua zabaltzea. Momentuz, proba moduan, herriko zenbait merkatarik Goieneko ekhitan ordaindu ahal izango diote

Ekhilur herriko ordainketa sistema dimentsio esanguratsuak hartzen ari da: 791 bazkide ditu, eta horietatik 63 profesionalak dira. Hurrengo erronka da merkatariek ere hornitzaileak ekhien bidez ordaindu ahal izatea eta, hala, herriko moneta sistema indartu.

Bide horretan, Goieneko energia berriztagarrien kooperatiba ekhiaren zirkuituan sartzeko proba hasiko dute aurten eta, hala, Ekhilurren bazkide diren zenbat Hernaniko dendek ekhitan ordaindu ahal izango dute elektrizitatea, behin Goieneko bazkide direla.

Helburua da probaldiaren ostean merkatarik guztiei aukera hau zabaltzea, baita geroz eta hornitzaile gehiagok bide bera jarraitu eta horiek sisteman integratzea ere.